# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Foru Aginduak*

### TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**1174**

**50/2008 FORU AGINDUA, otsailaren 15ekoa. Honen bidez, behin betiko onartzen da Haraneko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntuala. Espediente hori Uribarri-Haraneko osasun etxearen eta igerilekuen hornidura eremuari buruzkoa da.**

I.- AURREKARIAK.

Lehenengoa.- 2007ko ekainaren 21ean, Haraneko Udalak planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntual horri hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espedientea hilabetez jendaurrean jartzea ere. Honela eman zen horren berri: 2007ko uztailaren 6ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuz (81. zenbakia), 2007ko uztailaren 20ko “Noticias de Álava” egunkarian argitaratuz, eta udaletxeko iragarki taulan jarriz.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzeko epean, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu, beraz, udalak 2007ko abuztuaren 28ko bileran erabaki zuen behin-behineko onarpena ematea espedienteari eta Eusko Jaurlaritzako Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igortzea (sarrera eguna: 2007ko urriaren 2a), txostena eman zezan; batzorde horrek 2007ko urriaren 26an helarazi zion espedientea Arabako Foru Aldundiari, aldundiak egoki iritzitako txostenak eman zitzan.

Hirugarrena.- Hirigintza arloari dagozkion Autonomia Erkidegoko erakunde komunen zerbitzuak Arabako Lurralde Historikoari eskualdatzea arautzen duen martxoaren 5eko 35/1985 Dekretuak eranskinaren a) idatz-zatiko hirugarren puntuan xedatutakoarekin bat etorriz, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeko Planeamendu Atalak aztertu zuen espedientea 7/2007 bilkuran, 2007ko azaroaren 12koan.

Laugarrena.- Haraneko Udalak Arabako Foru Aldundiari bidali zion espedientea (sarrera eguna: 2008ko urtarrilaren 10a), hala bazegokion, behin betiko onar zezan.

Bosgarrena.- Abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/99 Foru Dekretuak agindutakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak otsailaren 11ko 1/2008 bilkuran aztertu zuen espediente hori.

II.- OINARRIAK.

Lehenengoa.-Espedienteak, Haraneko udalak sustatutakoak, osasun etxea eraikitzea du xede, baita igerilekuetako aldagelen 2. fasea eraikitzea ere. Horretarako, ezinbestekoa da eremuaren kalfikazioa proiektuak jasotako eraikin lanei egokitzea, osasun etxerako eta aldageletarako eraikinaren azalera zati batek, hain zuzen 75 $m^2$-k, Espazio Libreen-Lorategien Sistema Orokorra hartzen baitu, eta zati horretan ez da erabilerarik baimentzen.

Bigarrena.- Proposamena honexegatik egin da: egoki da 75 $m^2$-ko azalera hori berriz kalifikatzea komunitate ekipamendu, eta beste 75 $m^2$, berriz, espazio libre-lorategi, zer eta berdintzeko. Beste 75 $m^2$ horiek egun ekipamenduko kalifikazioa dute, eta ekipamenduen eremu berean daude; hain zuzen ere, igerilekuaren solariumean.

Hirugarrena.- Proposamenak bete egiten du Ordenanatzaren “Kiroletako Komunitate Ekipamenduen Sistema Orokorraren Zona” izeneko 60.3 puntuak ezarritako eraikigarritasun baldintza: 1 $m^2t/m^2s$.

Laugarrena.- Bestalde, proposamen horrek aldatu egiten du kale nagusiko eraikinaren ekialdeko lerrokadura, eraikin horretara sartzeko

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**1174**

**ORDEN FORAL 50/2008, de 15 de febrero, de aprobación definitiva del expediente de modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Valle de Arana, referida al ámbito dotacional del centro médico y piscinas de Ullibarri-Arana.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 21 de junio de 2007, el Ayuntamiento de Valle de Arana acordó aprobar inicialmente la modificación de referencia de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava nº 81, de 6 de julio de 2007, en el Periódico “Noticias de Álava” de 20 de julio de 2007 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no fue presentada alegación alguna por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 28 de agosto de 2007, a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo al Gobierno Vasco para Informe de la COTPV donde tuvo su entrada el día 2 de octubre de 2007, el cual dio traslado del expediente a la DFA en fecha 26 de octubre de 2007 para la emisión de los informes que la Diputación estimara convenientes.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el punto tercero del apartado a) del Anexo al Decreto 35/1985, de 5 de marzo, de transferencia de servicios de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma al Territorio Histórico de Álava en materia de Urbanismo, el expediente fue informado por la Sección de Planeamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su sesión 7/2007, de fecha 12 de noviembre de 2007.

Cuarto.- El Ayuntamiento de Valle de Arana remitió el expediente a la Diputación Foral de Álava, para su aprobación definitiva, si procediese, donde tuvo entrada el día 10 de enero de 2008.

Quinto.- En cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 1/2008, de 11 de febrero.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El expediente, promovido por el Ayuntamiento de Valle de Arana, tiene por objeto posibilitar la construcción de un centro médico y de una 2ª fase de vestuarios para piscinas, para lo cual se precisa adecuar la calificación del ámbito a la solución edificatoria proyectada, ya que una superficie de 75 $m^2$ del edificio destinado a centro médico y vestuarios invade el Sistema General de Espacios Libres-Jardines, donde no constituye uso permitido.

Segundo.- La propuesta se justifica en que la adecuación de calificación que se propone es recalificar dicha superficie de 75 $m^2$ como equipamiento comunitario y su compensación con la recalificación como espacio libre-jardines de otros 75 $m^2$ actualmente calificados como equipamiento y situados dentro del mismo ámbito equipamental, en el solarium de la piscina.

Tercero.- La propuesta cumple con la edificabilidad establecida en la Ordenanza 60.3 “Zona del Sistema General de Equipamiento Comunitario Deportivo” que es de 1 $m^2t/m^2s$.

Cuarto.- Por otra parte, la propuesta modifica la alineación Este de la edificación a la c/Mayor, ya que se acomoda a la traza

eskaileraren trazaduraren gainean baitago. Baina ez dago zertan eragozpenik jarri, ez baitio inguruko ibilgailuentzeko bideari oztoporik jartzen.

Bosgarrena.- Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen Arabako Lurralde Antolamendurako Atalak, azaroaren 12ko 7/2007 bilkuran, espedienteari buruzko txostena egin zuen. Hona hemen hitzez hitz:

"1.- Eragozpenik ez jartzea ondoko espediente honi: "Haraneko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa, Uribarri-Haraneko osasun etxearen eta igerilekuen hornidura eremuari buruzkoa". Ez da eragozpenik jarriko, ondoko hauetara egokitzeari dagokionez: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea eta Autonomia Erkidego Osoko Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legea.

2.- Osasun etxe berriak eta aldagelek okupatzen duten berdegunetarako 75 m$^2$-ak berraztertzeko proposamena baiestea, eta beste hainbeste m$^2$-ko azalera berriro kalifikatzea Espazio Libreen-Lorategien Sistema Orokor, ekipamenduen eremu berean (igerilekuen alboan dagoen solariumaren zati bat), jatorrizko azalerak kalifikazio horri eusten baitio; gainera, hurbiltasun irizpideak betetzen dira, eta antzeko zerbitzua ematen du. Hori guztia, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 105.7 artikuluak ezarritakoa oinarri.

Seigarrena.- Betebehar material guztiak betetzen ditu espedienteak.

Horregatik, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Behin betiko onarpena ematea Haraneko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedienteari, Uribarri-Haraneko osasun etxearen eta igerilekuen hornidura eremuari buruzkoari.

Bigarren.- Honako foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarren.- Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, egoki iritzi eta abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salaren aurrean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa foru agindu hau eman duen organoari. Hilabete izango da horretarako, honako hau argitaratu edo honen berri jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko otsailaren 15a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**1178**

**46/2008 FORU AGINDUA, otsailaren 15ekoa. Honen bidez, behin betiko onartzen da Oyón-Oion udalerriko Planeamenduaren Ordezko Arauen xedapen aldaketa. Espediente hori Labrazako 12. poligonoko 410 eta 411 zenbakidun lurzatiei buruzkoa da.**

I.- AURREKARIAK

Lehena.- 2007ko urriaren 26an Oyón-Oiongo Udalak udal planeamenduko arau subsidiarioen 2. aldaketa puntualari hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espedientea hilabetez jen-

proyectada de la escalera de acceso a dicha edificación, sin que quepa hacer objeción a la misma, al no interferir su desarrollo en la vía rodada próxima.

Quinto.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, Sección de Planeamiento Urbanístico de Álava, en su sesión 7/2007 de 12 de noviembre ha informado el expediente, en los siguientes términos:

"1.- No poner objeción al expediente de "Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, referente al ámbito dotacional del centro médico y piscinas de Ullibarri-Arana", del municipio de Valle de Arana, en lo que respecta a su adecuación a la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, a los instrumentos de Ordenación del Territorio de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco, y a los aspectos señalados en la Ley 5/1993, de 16 de julio, de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos.

2.- Autorizar la propuesta de reposición de los 75 m$^2$ de zona verde ocupados por el nuevo edificio de centro médico y vestuarios mediante la recalificación como Sistema General de Espacios Libres-Jardines de idéntica superficie dentro del mismo ámbito equipamental (parte del solarium junto a la piscina), por mantenerse la superficie originaria con tal calificación y cumplirse además con los criterios de proximidad y similar nivel de servicio, todo ello al respecto de lo establecido en el artículo 105.7 de la Ley 2/2006 de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo."

Sexto.- El expediente cumple los requisitos necesarios de carácter material.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Valle de Arana, referida al ámbito dotacional del centro médico y piscinas de Ullibarri-Arana.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente, y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 15 de febrero de 2008.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**1178**

**ORDEN FORAL 46/2008, de 15 de febrero, de aprobación definitiva del expediente de modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Oyón-Oion, referida a las parcelas 410 y 411 del polígono 12 de Labraza.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 26 de octubre de 2007, el Ayuntamiento de Oyón-Oion acordó aprobar inicialmente la modificación de referencia de las Normas Subsidiarias de planeamiento, así como someter